

# Goibek kale

Elgetako aldizkaria urria 50zk.

FERMIN IRIBAR  
SAN ROKE 36-1

## Kultura, kirola eta aisialdia Santiagora bidean



*Maderas Gallastegi, s. a.*

**MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA**

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

**Erraldoiak datoz!**

Hau ere ikusi behar! Herri txiki, lasai eta dexente baten bizi izatea betiko ametsa izan dut, baina poliki-poliki nire ametsa zapuzten ari da. Bai, DIRA. Zeren, nik ez dut nahi eta nik bezala beste askok ez dute nahi, ZER? ANTENA ERRALDOI HORIEK.

Ipintzen dena ez da kentzen, baten atzean beste bat etorriko al da? Zer gertatzen da herriaren etorkizunarekin, zeren azken finean, gu hilko gara, baina gure ondorengoentzat zer nahi dugu? Herri gaixoa, zaharra, ahula, hutsa...

**HAU BAI HAU TURISMOA!**

Ez parkerik, ez mendirik... Baina lasai "ospital herrikoia" bihurtu daiteke.

Txin-txin, txin-txin, diruaren hotsa, harek ematen du maitia herri gaixoa.

"Desbariatzen" ari naiz? Ez, badakigu broma guztien atzetik zerbait izkutatzen dela eta nik, Elgetan ANTE-NARIK EZ EGOTEA.

Elgetar bat

**ZURE ESKUTITZEN  
ZAIN GAUDE!**

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egi-leak hala eskatuko balu, inisialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobran Goibekokale ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

**e-mail**

Gurekin internet bidez euki gura badozu hartu-  
emona.

Posta elektronikoko berria:  
[goibeko@topagunea.com](mailto:goibeko@topagunea.com)

**AENOR****ER****Empresa  
Registrada****ER-714/2/96***Estampaciones* **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatua.

**Salbador, 32. Tel eta Faxa: 76 82 6**



## Gizona ez da bakarrik bizi

**A**utobusean nentorren, eta bapatean, doinu berezi bat entzun dut nire inguruan. Desimulo handiz begiratu eta, nire

aldamenean zegoen emakumeak, bere poltsikotik zerbait ateratzen duela ohartu naiz, irratia? ez, telefonoa! Bai, parregarri gerta daiteke, baina jadanik, gaur egun, guztiok sartzen dugu eskua poltsikoan telefono hotsa entzuten dugunean. Gutaz ahaztuko diren beldur ote gara?

Egia esan, baliabide honek, gizonaren ezaugarri bat azpimarratzen du, hau da, gizakiak duen komunikazio beharra adierazten du. Ezin gara bakarrik bizi, ezin dugu norberarentzat eta norberarekin bakarrik konformatu, momentu guztietan besteen beharra dugu. Nori kontatu gertatu zaidana, sentitzen dudana, nire ilusioak, nire akatsak? Pertsonok besteekin eta gure ingurugiroarekin harremanetan jartzeko ahalmena dugu, eta harreman horien bitartez hazi eta hezitu egiten gara. Hortxe ditugu gure familia, eskola, lagunak... Eta hortan datza gure kultura, hizkuntza eta tradizioek duten garrantzia, hauek, gure ahalmenak desarroilatzen eta pertsona helduak izaten laguntzen digute.

Horregatik aspertzen eta tristetzen gara bakarrik gaudenean, bakardadeak bihotza ximeldu bezala egiten du: gizona, besteak maitatzeko eta berau maitatua izateko egina baitago. Pertsonok besteie emateko eta on egiteko beharra sentitzen dugu, ezin dugu guretzat gordegeu garen altxorra. Eta aldi berean, geu nork maitatuko gaituen norbaiten bila gabiltza, era batera edo bestera, beti besteen "maitia-maitia" itxoiten ari gara. Zeuri ere hau gertatuko balitzazu, ez larritu, hori polita da, horrek bihotza eta maitasuna dituzula adierazten du.

Hau dela eta, erreflexio honen ondoren, eskerrikasko denori.

Sonia Cisneros



## Antena

**Susmagarria:** Faktore sozio-psikologikoetan soinarrituriko kanpaina publizitarioan ehundoko gerra ageri zaigu. Hau guztia herritarren edo pertsonen osasunaren kontura. Aspaldi honetan,

denok ezagutzen ditugun telefonia mugikorren konpainiak iñor konturatu orduko, isilean, lizentzia gabe, dirua bitartekari erabiliz, antenak jartzen ari dira. Honetaz konturatzeko gure inguruan begiratzearekin nahikoa daukagu: Eibar, Abadiño, Gatzaga,... Hau guztia gutxi balitz, orain, Elgetan (Uruburuko terrenoetan? Eta guk, zer egin dezakegu horren aurrean?

Herritar batzuk gai honetaz interesatu gara eta informazioa bilatu dugu.

1.- Ingurugiroarekiko inpaktoa: bisuala, "turismoarendako oso egokia".

2.- Erradiazio elektromagnetikoak eragindako efektuak: giza organismoan, landaretzan eta animalietan.

2.1.- Osasunarentzat kaltegarria: batez ere haur eta jubilatuentzat.

### Zer kalte?

- Sistema begetatiboarengan eragina.
- Loaren eraldaketa.
- Zerebroaren funtzionarnenduan arazoak.
- Sistema inmunitarioaren ahultzea.
- Kantzerra, batez ere, tumore zerebralak.
- Gizaki eta animalien portaeren aldaketa...

Honetaz hainbat ikerketa egin dira Alemanian, Israelen eta Australian. Eta beste herrialde asko ere gai honetaz arduratzen eta ikertzen hasi dira. Baina hau guztia zehaztu arte zer egin dezakegu? Zalantzaren aurrean zergatik ez dugu prebentziora jotzen? Gure osasunarekin jokatzeko utziko al diegu?

Mesedez, antenak herritik zenbat eta hurrunago hobeto, herritar guztion onerako. Eta jarrita dagoen beste antena bat erabili ahal bada hobe, bai naturarendako eta baita guretzako.

Informazio gehiago nahi izanez gero lasai asko eskatu.

Rebecka Ubera

**kutxa** gizarte-ekintza obra social



Eusko Jaurilaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

### GOJBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).

**Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

**E-mail:** goibeko@topagunea.jalgi.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Euskal Mendizaleen museorako lehen pausuak

Mendizaleen dokumentu eta argazki artxiboa Udaletxean dago

Maiatzak 23an Euskal Mendizale Elkartearen urteurrena izan eta gero, Udaletxearen eta elkartearen arteko harremana bere fruituak ematen hasi da.

Udaletxea eta mendizaleen elkarte, mendia gaineko proiektua martxan jartzen hasi dira Elgetarako. Dagoeneko Euskal Mendizale Elkarteko dokumentu eta argazkien artxiboa Udaletxearen goi aldeko gela batean dago, Udaletxeak lokal hau utzi die elkartekoei eta laster

dokumentu eta argazkiak edonork kontsultatzeko moduan egongo dira.

Bestalde, Euskal Mendizaleen museoa Elgetan kokatzeko aukera era badagoela ez da ahaztu behar, museoak espazio gehiago behar du eta Maalako eskolan kokatu daiteke.

Komentatzeko gaude, seguruenik hurrengo astetik aurrera mendi ibilaldiak antolatzen hasiko dela Oskarbi elkarte. Pozteko berria inondik ere.



Museoak eskoletako gorenko pisuan izan dezake kokapena.

## 1983an jaiotakoak ez dute soldaduzka egin beharrik

Urriak 31n Intsumiso eguna Abadiñon

Urriak 31n Intsumiso eguna izango da Abadiñon. Egun honetarako ekintza ugari antolatu dituzte Euskal Herriko Intsumiso taldeek. Egun guztian zehar soinu tresnen erakusketa, talde eta kolektibo ezberdinen eztanak, grafitiak egiteko aukera, erraldoiak, kale animazioa... egongo

dira. Hainbat kontzertu ere antolatu dituzte, besteak beste Lorelei, Noizbait, Zea Mays, Bide Ertzean, Pumping Folk Band... izango dira bertara joandako jendea animatuko dituztenak.

Elgetako Udaletxeari Estatuko Armada-

rik, soldaduzkaren gainean bidalitako eskutitzean jakinarazi diotenez, 1.982ko abenduaren 31 geroztik jaiotakoek ez dute derrigorrezko soldaduzka egin beharrik. Honetaz gain, 2.002 urteko abenduak 31tik aurrera ez da derrigorrezko soldaduzkarik egongo. Egun horre-

tan soldaduzka egiten eta prorrogan daudenak erre-serbara pasatuko dira, beraz, ez dute soldaduzka egin beharrik. Hala ere, armada hor dago eta hori da intsumiso taldeek ikusi ezin dutena. Desagertu arteko lanean jarraituko dute intsumituek.

GRUPO  
**IFA**  
Produkturik onenak,  
prezio onenean  
Tel:  
76 80 98.  
**ALDI**

Andoni Bolinaga  
METALAK  
FS7 18  
Tel - Fax 76 80 64  
ELGETA

# San Roke osteko antenari buruzko batzarra egin zen hilaren 25ean

San Roke osteko zelaian jartzekotan diren antenak kezka nabarmena zabaldu du herrian, horrelako antena batek sor ditzazkeen ondorioen berri zihurrik ez delako iñork.

Hori dela eta gai honekin arduratuta dagoen talde batek informazio panfleto batzuk banatu ditu etxetara eta batzar bat ere izan da udaletxe-

an gai honi buruz. Batzar honetan Iñaki Ugarteburu zinegotziari herritarren kezka azaldu zitzaion. Prebentzio gisa, oraindik antena ez jartzearen proposamena luzatu zitzaion. Talde hau hitzaldi informatibo bat ematekotan da herri mailan eta Udaletxeko erantzunaren arabera ekintza gehiago egiten jarraituko dute.

*Antenen eragiñari buruzko informazioa banatu dute etxe guztietara. Aurrerantzean beste bilera informatiborik ere egingo da.*



## Emakumeek Mendi Mendian elkartean badute lekua

Urriak 22an Mendi Mendian elkarteko bazkideek urteko Batzar Orokorra egin zuten. Batzarrean 23 bazkideetik 17 egon ziren.

Batzarrean hitzegindako puntuen artean bi izan ziren garrantzitsuenak: alde batetik, jubilatuek ez dutela orain juntan botorik izango ahotsa izango badute ere; bestetik, elkartean emakumeak sozio izateko izango duten aukera.

Batzarraren gehiengoak, % 75ak, emakumeak elkarteko

sozio izatearen alde egin zuen. Orain errain eta alabek seme eta suinen eskubide eta sartzeko aukera berak izango dituzte.

Elkarte honek momentu honetan 25 bazkide ditu, bazkide gehiago izandakoa da Mendi Mendian elkarte, beraz, bazkide izatea nahi izanez gero elkartearekin harremanetan jarri behar.

Aipatzekoa da lehen aldiz euskeraz jaso dutela akta Mendi Mendian elkartekoek, Elgetako elkarte zaharrena denak hain zuzen.

**Goikobalu abesbatzaren emanaldia.**

Azaroak 27an, zapatua, Arrasateko Goikobalu abesbatzaren emanaldia izango da. Emanaldia elizan izango da meza ondoren. Emanaldia Udaletxeak antolatu du, Ozkarbi abesbatzaren laguntzarekin.

**Pelikulak Gaztetxean**

Gaztetxeok pelikula emanaldiak antolatu dituzte azarorako. Azaroak 14an gaueko 22:00etan "La vida es bella", pelikula arrakastatsuen emanaldia izango da. Azaroak 9an arratsaldeko 9etan "Robin Hood, lapurren printzea" pelikularen emanaldia izango da. aipatu pelikula hau euskaraz izango dela. Azaro amaieran ere egongo dira emanaldiak, baina oraindik zehaztu gabe daude.

**IÑAKI JATETXEA**

Leku paregabekoa,  
eguneko menua  
Tel: 943 76 82 83

**OSTATU JATETXEA**

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.  
Karta.

## Frontoiaren erabilpena

Berritu eta estali berri dugun Arbiaska frontoia dagoeneko topeetara erabiltzen hasita dago. Dagoeneko zapatu goizetan frontenis txapelketa jokatzeko bertan eta, Bergarako Udal Frontoiaren konponketa lanak iraun duten bitartean txapelketako partiduak ere bai.

H e m e n d i k aurrera Angiozarko Herri Eskolako eta gazteen erabiltzenerako ondoko ordutegia erreserbatuta edukiko dute: Astegunetan egunero

11etatik 11,30etara, eta arratsaldean lauretatik zazpietara. Bestalde martitzen eta eguenetan ordu bietatik zazpietara okupatuta egongo da. Ordutegi hauetatik kanpo jokatzeko nahi duenak Bergarako Kirol Zerbitzura deitu eta bertan hartu dezake txanda. Txanda hiru hilabeterako har daitezke eta gero, nahi izanez gero, berritu egin behar dira.

Gorago aitatu dugun bezala "Binakako III. Frontenis Txapelketa" hasita dago jokatzen

zapatuetan. Hamalau bikotek dihardute parte hartzen bi taldeetan banatuta. Zapatu goizetan, 9etatik 12,45erarte jokatzeko lehen taldeko bikoteek, hiru ordu laurdeneko epetan, eta arratsaldeko hiruretatik zazpiak laurden gutxirarte bigarren taldekoek. Finalak azaroaren 13an jokatu dira goizeko hamarrak laurden gutxitan hasita. Txapelketa hau Deba Garaiko zirkuiturako puntuagarria da.

## Bataioak

Urriaren 17an, aspaldiko partez, bi bataio ospatu ziren Angiozarko parrokiaren. Alde batetik Ioritz Ondarra Aranguren eta bestetik Aritz Basterra Elortza izan ziren bataioak. Meza ostean mutiko eta neskatilen pozerako, eta beste batzuentzat ere bai, goxoki eta txanponak bota zituzten aita eta ama puntakoek. Zorionak gurasoei eta familiakoei.

## San Martinak Azkunetan

Azaroaren 6an ospatuko dituzte Azkunetarrek, eta inguratutakoek, zaindari duten San Martin Tourskoaren jaiak. Berez azaroaren hamaikan da San Martin eguna, baina denentzat egokien den zapatura aldatzen dute ospakizuna eta aurten hileko lehenengo zapatura aurreratu dira.

Hamabiak eta erdie-

tan ospatuko den mezarekin emango zaie hasiera jaiak, aurrez etxalireoren bat edo beste entzungo bada ere. Ondoren gonbidapena elizpean, jardunaldia gozatzeko, eta Bergarako Jardun Elkarteko Trikiti eskolako soinu-joleekin erromeria eliza aurrean.

Inguratu aukera duzuen guztiok, benetan jai polita da eta.



## Liburutegiko ikastaroak abiatu dira

Urriarekin batera hasita daude dagoeneko liburutegiko eskulan ikastaroak. Asteko bi egunetan daude banatuta aurtengo bi ikastaroak: astelehenetan gantxilo ikastaroa, 3,30etan hasi eta 5,30ak arte, eta eguaztentean eskulanak orokorrean ordu bietatik bostak arte. Gantxilo ikastaroko irakaslea Mari Jose Intza izango da eta eskulanetakoa Mila Elortza.

Oraindik ez zaretenok animatu inguratu bertara eta laster eguneratuko zaituzte.

# ESKOLA PORROTA II

## Zer egin daiteke zure seme edo alabak emaitza txarrak baditu?

Bi bitarteko eduki daitezke abiapuntutzat:

- Alde batetik EMAITZA hartzen badugu abiapuntu eta helburu bezela, honek berez tentsioa sortuko du. Aurrez haurrak lortu behar duena, hau da helmugak, zehazten baditu bitartean dagoen lana eta esfortzua kontutan hartu gabe, sistematikoki funtzionatzen ikasiko du. Emaitzei horrenbeste garrantzia eman ez, haurrak frustrazio ugari izateko arriskua dauka. Frustrazio hauen ondorioz bere burua etiketatzen, gutxiestera... bultzatu dezake haurra.

- Oso bestelako abiapuntu bat AHALEGI-NA da. Askoz ere egokiago eta eraginkorragoa da bitarteko hau lantzea. Haurrak ahalagintzen diren bakoitzean mezu egoki eta positibo batekin saritu behar dira. Alde-



rantziz, gaizki egiten duten bakoitzean gure atentzioa deitzen badute, efektua jokaera berdina errepikatzea izango da. Horregaitik, ahalegintzen denean ahaleginarekin lortu duela transmititu behar zaio, honela KONSTANTE izaten lagunduko zaio, behar-beharrezkoa dena ikasketetarako.

Guzti honekin batera ERANTZUKIZU-

Nak hartzen laguntzen zaio haurrari. Honetarako gauzak egiten ikasteko egitea bezelako modurik ez dago. Beraz, gauzen ERANTZULE izaten ERANTZUKIZUNEZKO gauzak egiten ikasten da. Bi motibazio mota ditugu gauzak egiten ikasterako orduan:

\* bata, kanpotik (estrinsekoa) ematen zaiona: sariak/zigorak.

Era honetako motibazioak eraginkorrak izateko, momentuan bertan eman behar dira, bestela haurrak ez du egindakoaren eta guk emandako erantzunaren arteko loturarik egiten.

\* bestea, barnekoa (intrinsekoa) motibazioa: batetik gurasoak eredu bezela ikusi eta horrela gauza bat egiten jakin duelako gozatzen duenean edo eta ahaleginaren indarraz lortzen duenean ematen da era honetako motibazioa.

Motibazioak oso garrantzitsuak dira haur baten jokaera bat errepikatze edo ezabatzerako orduan. Honekin batera, hurrei beraiek aukeratzeko oso eraginkorra da, alde batetik pentsatzen ikasten dutelako eta honela erabakitzen. Eta bestetik, erantzule (responsable) izaten.

***Haurra ahalegintzen denean ahaleginarekin lortu duela transmititu behar zaio, honela KONSTANTE izaten lagunduko zaio, behar-beharrezkoa dena ikasketetarako.***



**Instalazioak eta mantentze lanak**

24 orduko zerbitzua  
tel. mugikorra: 619692336  
tel: 789057-768025



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

**TAPEM, S.A.**

**Trokelak eta estanzazioa**  
**TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK**

# Zapatu gabeko ordu aldaketiak eragitten dau?

## Zergaittik egitten da hori aldaketioi?



Ramon Ugalde  
Bihargiña (44 urte)


Horrek ordu aldaketiorek ez dosta ezertan eragitten eta gutxiau gorputzian. Uste dot eguneko energia hobeto aprobetxatzeko egitten dala hori ordu aldaketioi.

Gorputzian ez dosta eragitten, baiña eskolara fateko orduan argi egotia askoz nahixau dot ilunetan fatia baiño. Badakit zergaittik dan, baiña ez naiz akordatzen.

Esfi Askasibar  
Ulkaslia (16 urte)



Neri ez dosta eragitten, gehixenbat umiak dira igartzen dabenak. Gaiñera, ez dosta inporta izaten argixau ala illunau egotia. Uste dot ekonomian dagon aldiagaittik egitten dala.



Jhaki Gorosabel  
Bihargiña (39 urte)

Horrek aldaketiorek ez dosta eragitten, baiña oiñ dagon moduan jarraitu ezker nahixau dot. Esaten dabenez ordu aldaketia argixa aurreratzeko izaten da.



Jon Agirreazaldegi  
Bihargiña (42 urte)


Ez da eragitten dostan gauza bat. Ez dosta inporta izaten argixau ala illunau egotiak. Ez dakit zergaittik egitten dan hori aldaketioi.

Rosa Untzetabarreneke  
Bihargiña (43 urte)



Gehixau eragitten dosta zapatu gabian ordu bat kendu egitten dabenian, baiña jartzen dabenian hobeto, ordubete gehixau lo egitteko. Gaiñera, lanera fateko orduan argi baldin badago beste poztasun bat eukitzen dozu. Energia hobeto aprobetxatzeko izaten da.

Liemni Mendizabal  
Bihargiña (27 urte)



**ELKORO TORLOJU LANTEGIA**  
**DEKOLETATA ETA**  
**FIJAZIO SISTEMAK**  
Berraondokua Z/g 20690 Elgeta  
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

**EROSLE**  
M. Asun Agirre  
Salbador 26. Tel: 768190

Kartetan jokatzeko giro egokia  
Tel: 768093  
**Patxi Taberna**

Tel: 76 81 31  
M<sup>a</sup> Jesus Arrazola  
**VIVO**  
Janari denda

M<sup>a</sup>  
**ESTHER**  
Tel: 76 81 67



ARIES: Horrekiñ adarrekiñ oindio-kan be ligatzekotan habil? Hik bada-  
kak morala zezenai adarretatik eba-  
tzeko.

TAURUS: Aldemenekuei kaso gehixau  
egin biharko dotsak/dotsan damutu  
baiño lehen. Sekula ez dok/don bestiei  
entzutia gaizki etortzen.

GEMINI: Kurtso hasieria gogorra egin  
jatzula? Hasi besteik ez eta dana keja.  
Oindiokan aguantau biharko  
dok/don.

CANCER: Inguruan dagon pertsonaik  
zoragarrixena haiz. Baiña iñok ez hau  
ulertzen, hori dok/don hori markia!

LEO: Behingugaittik etxian geratziak  
ez dua/dona kalteik egingo. Gehixau  
esango duat/donat, granoik be ez  
dua/dona urtengo.

VIRGO: Buruan bueltaka darabizun  
hori asuntua ondo pentsau bihar  
dok/don. Hemendik lasterrera seguru  
jakingo dok/don arre edo iso egin.

LIBRA: Desorekauta habil aspaldixan.  
Hegoaiziana ez dok/don eta hik  
badakik/badakiñ asuntua nundik  
norakua dan.

SCORPIUS: Horrek pentsamendu gaiz-  
tuok alde batera laga eta lasaixau bizi-  
tzen ikasi bihar dok/don. Ez erabili  
arrazoi bardinak hire burua zuritzeko.

SAGITTARIUS: Zapatuan demaseko  
parrandia botako dok/don. Argi ibilli  
aldapetan bahabil. Muturrak zaintze-  
ko esaten duat/donat bakarrik.

CAPRICORNIUS: Despistau xamar  
habil. Badakik/badakiñ edadiakin  
gauzak ahaztu edo akordatzia ahaztu,  
ezta?

AQUARIUS: Etxeko girua ez dok/don  
aproposena, baiña lasai, astebeteko  
kontua besteik ez dok/don. Saiatu  
hadi gauzak goxo-goxo esaten.

PISCIS: Artistia haiz benetan! Hori  
bai, oindiokan ez dok/don bape argi  
ikusten zein dan hire espezialidadia.

## Alain Valle Ikaslia (13 urte)

- Zein kurtсотan zabiltz? DBHko  
bigarren maillan.

- Ikasle ona zara? Ez txarra, ez  
ona erdiko zer edozer. - Eta zer  
gustauko jatzun ikastia hemen-  
dik urte batzutara? Ondio ez dot  
pentsau horretan.

- Eskolako gaiztuen edo forma-  
len artian sartzen zara? Ez batan  
ez bestian artian.

- Nun pasatzen dozu eguneko  
orduik gehixenak? Eskolan.

- Zelakua izan zan lehenego  
emon ziñuan lastana? Ez naiz  
akordatzen.

- Saskibaloia  
ala eskuba-  
loia?

Bixak.

- Gustatzen jatzun musika talde  
bat? Etsaiak.

- Rubixak, morenak ala pelirro-  
jak? Morenak eta rubixak.

- Zure gustoko neska bat?  
Pamela Anderson.

- Zein miresten dozu? Iñor be ez.

- Nun nahixau ikastia, Elgetan  
ala Bergaran? Elgetan.

- Zein asignatura da zure gusto-  
kuena? Natur eta gimnasia. - Eta  
gutxien gustatzen jatzuna?

Matematikak eta gaztelera.

- Egin dozun trastadaik haundi-  
xena? Kristalak apurtu.

- Zeiñek botatzen dotzu broka  
hobiak, amak ala aittak? Bixek  
botatzen doste bronka onak.

- Etxeko lanak egitten dozuz?  
Bai, beti.

- Zer gustauko jatzun izatia  
haundixa izandakuan?

Motoristia.

- Zein da telebista-  
ko programaik  
gustokuena?

Los Simpson.

- Eta gutxien  
gustatzen ja-  
tzuna? El

Super.



Berezitasuna:

Buztana.

Pintxo gozoak  
otartekoak.

**BOLATOKI**  
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

**Goio**

**Sarasua**

Igeltzeritza lanak

## Aberastasuna edo arriskua?

Munduko herrialde askotan egin diren ikerketen arabera sortzen diren hondakinak sortzen diren ondasunen kopurua gairiditzen dute. Datu hauek harrigarriak diren arren, gure sistema produktiboaren efikazi baxua erakusten digu.

**Estatu**  
Batuetako herritar bakoitzak urtero bere hondakin solidoekin bi futbol zelai baino gehiago beteko lituzke.

Imajina dezagun orain ikerketa berdina egiten badugu, baina oraingo honetan hondakin solidoei, likido eta gaseosoak gehituz, nolako ondorioak aterako genituzke? Askoz ere okerragoak.

Erabiltzen ez diren gauzak, gutxiago irauten duten gauzengatik aldatzen dira, eta hauekin hondakin berri eta handiago batzuk sortzen dira. Modu honetan hondakin kopurua handitzen doa.

Urtero, eta forma solido batean bakarrik, 600 milioi tonelada industrial, energia eta lehengai ugari eta baliagarri dituztenak bertan behera utziak izaten dira eta honela hartzen

dute hondakin izena, hauetako asko oso arriskutsuak dira gainera.


Hondakin organikoaren egoera askoz okerragoa da. Nekazaritzarako eta arrantzako hondakinak bakarrik kontuan hartuz 1500 milioi tonelada materia organiko izaten dira bertan behera utziak eta hondakin bihurtuak Europar Batasunean. Hondakin hauek oso kutsagarriak dira.

Zer egiten dugu hondakinekin?

Hondakin suntsiketa askotan hondakin horiek begi bistatik kentzeko afana izaten da. Adibidez: basurak



*Hondakin suntsiketa askotan hondakin horiek begi bistatik kentzeko afana izaten da.*



*Hirietako hondakinak beti sortu izan dituzte izugarriko kalteak.*

erretzean egia da disimulatzen dugu basura horien existentzia lurrean, baina, atmosferara bidaliz.

Soziedade bakoitzak bere hondakinak sortzen ditu.

Mendeetan zehar nekazariak errez

bereganatzeko eta ondoren errez deskonposatzeko elikagaiak sortzen dituzte, naturako elikagaietatik izan dira hain zuzen, horretarako oso energia gutxi erabiltzen zutelarik. Sortzen ziren hondakinak oso gutxi ziren eta gainera erraz birziklatzekoak. Bestalde, hirietako hondakinak beti sortu izan dituzte izugarriko kalteak. Oraintxe ari da topea jotzen gizon produktibitate kontsumidorea, baina ez berziklatzailearena, zeren gure goi mailako teknologiarekin ere ez gara gauza sortzen ditugun hondakinak desegiteko.


D.B.H.-4-ko ikasleak.

# Santiagoko Bidea: peregrinazioa baino zerbait gehiago

Azken urte hauetan asko eta asko dira oporrak Santiagora bidean pasatzen dituztenak

Gaur egun oporretara joateko hainbat leku daude eta denak dira erakargarriak oso. Santiagoko Bidea edota Donejakue Bidea (Euskaltzaindiak esaten duen bezala) egitea da horietako bat. Azken urte hauetan jende ugari bere aisialdi egunak Compostelara bidean pasatzea erabaki ditu. Horietako bi Bixente Askasibar eta Juan Luis Arantzabal elgetar gazteak izan dira. "Opor ezberdin batzuk egitea nahi izan dugu. Lagun batzuen gomendioari kasu egin diogu. Bide batez, "Urte Santua" dela aprobetxatuz guk ere bidaia hau egitea erabaki genuen" diozku Bixentek. Biek argi utzi digute ez dutela arrazoi erlijiosorik izan bidaia hau egiteko, baina aukeran izanda penitentzian joan dira egindako bekatu guztien barkamena lortzekotan. Kontatuko al digute beraien penitentzien berri?

XVI. menderarte peregrino ugari egiten zuten Compostelako Santiagorako Bidea peniten-



*Ikusten denez ez da gauza askorik behar Santiagoko Bidea egiteko.*

tzia bezala. Pixkanaka, protestantismoaren gorakadarekin batera, jendeak utzi egin zion bide hau egiteari. XVIII. mende amaieran ia inork ez zuen bide hau egiten. Gaur egun berriz, peregrinatzearen ispiritua berrindartu egin da nahiz eta konnotazioak oso ezberdinak diren. Kirola egitea edota leku ezberdinak ezagutzearen grina arrazoi erli-

jiosoei gailendu zaizkie. Jende asko bizikletaz, zaldiz edota jertsea, frakak eta oinetakoak soinean dituela Donejakuera bidean abiatzen da. Juan Luisek eta Bixentek ere antzerako zerbait egin zuten, "ahalik eta arropa gutxien eraman genuen. Pare bat kulote, txubaskeroa, esterilak eta sakua. Kamping denda ere eraman genuen badaezpada,

baina ez genuen erabilteko beharrik izan".

## 90 km. egunero

Elgetar gazte hauek Orreagan ekin zioten bidaiari Mountain Bike banarekin. Dena den, beraien helburua oinezkoak egiten zuten bide beretsua burutzea zen Juan Luisek adierazi digun bezala, "gure asmoa oinez doazenen

## SISTECO


erraminta makina

Juan Luis Berechinaga  
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

## IBAIBARRIAGA

GARRAIOAK

Tel: 768072  
Salbador zeharbidea 2  
ELGETA



San Roke 6  
tel: 768168.

bide berbera egitea zen, menditik alegia. Kasu batzutan ezinezkoa zen, bidearen gogortasunagaitik edota bizikletan ibiltzea ezinezkoa zelako. Mendiko bidea egiteak kilometro eta esfortsu gehiago eskatzen du”.

Bidaia guztia oso ongi planifikatu zuten Juan Luisek eta Bixentek. “Gutxi gora-behera gauza beretsuak egiten genituen egunean zehar. Batzuetan beste 90 kilometro egiten genituen egunero. Goizeko hamarrek aldera abia-

tzen ginen, ondo gosalduta ondoren. Eguerdia partearrarte bizikletan ibili ostean bazkaltzeko gelditzen ginen. “Menu peregrino” jaten genuen. Bazkari honek ez zuen ezer berezirik, izena soilik. Bazkalondoak inguruak ikusteko aprobetxatzen genituen, berriz ere martxan jarri aurretik. Afal ostean bi edo hiru freskagarriren laguntzaz ikusi beharrekokoak ikusten genituen lotara joan aurretik. Herri bakoitzean aterpe edota antzeko tokiak dituzte gaua pasatzeko”, adierazi digu Juan Luisek.

### Bitxikeria ugari

Horrelako kasuetan gertatzen den bezala bidaia honetan ere ez da bitxikeriarik falta izan. Bixentek gogoratu dituganak, “bide estu batetik gindozazela behi batekin topo egin genuen. Kilometro bat



*Ezustekorik ez zen falta izan bidaian zehar.*

inguru bere atzetik joan behar izan genuen. Bide baztarra hain zegoen zikina ezinezkoa izan zitzaigula animaliarri aurrea hartzea”. Ez da hau gertatu zitzaizen bitxikeria bakarra, “erreka pasatzen laguntzeko asmotan bizkar gainean ipini nion bizikleta madrildar bati eta bizikleta eta guzti urperatu egin zen”. Ura dela eta ez dela izan zuen “pajararen bat” Juan Luisek. Bixentek umore handiz gogoratzen du gertra-

tutakoa, “Burgos pasa ondoren Juan Luisek arazo txiki batzuk izan zituen urdailean. Iturriko urak sortarazitako arazoak izan ziren, garai horietan sulfato ugari izaten baitu. Nik, lagun baten esanehi jarraituz, ura erosi egiten nuen”.

### “Compostela” dokumentua

Donejakue bidean jende ugari ezagutzeko parada izan zuten. Leku askotako jendea. “Bidean jende asko ezagutzen duzu. Lagunak ere egin genituen. Bitxikeriekin jarraituz, Musulman batekin ere egin genuen topo. Hauei ez diete “Compostela” ematen baizik eta bidea egin dutenaren agi-



*Juan Luis “Jakituriaren Harria” musukatzen.*

***Bixente: “Erreka pasatzen laguntzeko asmotan bizkar gainean ipini nion bizikleta madrildar bati eta bizikleta eta guzti urperatu egin zen:”***

# ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



# HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA

ria", diozku Juan Luisek.

Behin Santiagora heldu ondoren, bidea egin duzunaren agiria lortu dezakezu, "Compostela" izenez ezagutzen den agiria. Juan Luisek "Compostela" zer den eta nola lortu daitekeen azaltzen digu, "lehenik eta behin agiria lortu behar da. Hainbat lekutan

lortu daiteke. Bidean zehar zigilatzen joan behar duzu bidea egin duzunaren seinale gisa. Behin Santiagora heldu

## Juan Luis: "Compostela" dokumentua eskuratu nahi bada beharrezkoa da bidaiaren helburuak gutxienik erlijiosoak edota izpiritualak direla esatea."

ondoren, bidea egin izanaren arrazoiak eskatzen dizkizute. Beharrezkoa da bidaiaren helburuak gutxienik erlijiosoak edota izpiritualak direla esatea bestela ez dizute dokumentua ematen".

Bekatuak barkatzeko ere bete dituzte betebeharrekoak bi gazte hauek. "Bekatuak barkatzeko Santiagon mezatara joan beharra dago. Horre-

taz gain hamabost egun aurretik edota ondoren aitortu beharra dago. Hori eginaz gero barkamena lortzen da. Guk denak bete ditugu" dio Juan Luisek.

Bixentek eta Juan Luisek barkamena lortu dute, baina guk, saiatu garen arren, zeren penitentzian joan diren jakin gabe gelditu gara. Hurrengoan izan behar.



Bixentek eta Juan Luisek lagun asko egin zituzten bidaiari.



Hainbeste kilometro bizikleta gainean egin ostean atsedendaldiak asko eskertzen dira.



Juan Luis "Bodegas Iratxe"-ko iturritik ardoa edaten.

# HAIZEA

# TABERNA



giro atsegina  
lagunartean  
egoteko.

Tel: 768256



Jesús Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3.  
Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

# Iñaki Ugarteburu: "Guztia ordenan ipintzeko kirol teknikari baten beharra ikusten dut"

Iñaki Ugarteburu Elgeta-ko kirol zinegotzi berria dugu. Jaiotzez Eibartarra, baina duela lau urte-tik Elgetan bizi da. Ezkonduta dago eta bi semealaba ditu. Gaur egun Bergarako kirol teknikaria da. Gasteiz eta Donostian magisteritza ikasketak burutu eta gero madrilerako joan zen INEF egitera. Pasa diren hauteskundeetan EAJ-EA alderdiaren zerrendan joan zen, ordurarte HB-k zeukan kirol zinegotzi kargua beregain hartuz. Kirol zale amorratua, era guztietako kirolak egin ditu: hasi judotik, errugbia, atletismoa, saskibaloia... Horretaz gain, hainbat erakundetan ibili da murgildua azken urteotan, beti ere bolondres gisa. Kirol zinegotzi den aldetik beregana jo dugu aurten-go urterako eta ondorengo urteetarako dituen asmoen berri jakin asmoz.

- Zinegotzi kargua izan al da izan duzun lehengo kargu publikoa?

Bueno, Gipuzkoako errugbi federazioko presidenteorde naiz gaur egun. Ez dakit, agian kar-

gu publiko bezala kontsidera daiteke. Baina zinegotzi bezala lehendabiziko aldia da.

- Orain arte kirolarekin loturarik izan al duzu Eibarren edo beste edonon?

Bizi guztia kirolari lotuta egon naizela esan dezaket. 10 urterekin hasi nintzen kirola egiten, judoan. Hamabi bat urte egon nintzen, hasieran ikasle bezala eta gero irakasle bezala. Gero 16-17 urterekin, errugbian hasi nintzen bertan ere urte dextente daramazkit. Magisteritzan nabilela atletismoan ere zerbait egin nuen. Behin Madrilerako INEF ikastera joan nintzenean, errugbian gehiago sartu nintzen. Espainiako federazioan egon nintzen, Espainiako selekzioan prestatzailan jardun nuen. Getxon eta Eibarko errugbi taldeetan ere egon nintzen. Eibarko errugbi taldeko lehendakaria naiz gaur egun.

- Kirol zinegotzi zaren aldetik zein asmo dakartzazu? Zein gai dituzue eskutartean?

Nere lehenengo asmoa eta garrantzitsue-na, kirol kontseilu zabal



"Uste dut kirol gehiago egon beharko lukeela Elgetan."

bat eratzea izango da. Hau da, kirolaz arduraturik dagoen jendea erakarrinahi dugu. Honela, ardura ez zen udaletxean gauden langileen gain soilik egongo. Kirola interesatzen zaien jendearen iritziak biltzea nahiko nituzke. Ez dut uste asko eskatzea denik, kontseiluko bilerak hilean behin izango ziren soilik. Gero, eskuartean dugun gaietako bat kirol teknikari bat kontratatzearena izango zen. Herri honetan, kirolariloak protagonismo bat izan beharko lukeela uste dut. Jornada erdiz lan egingo lukeen teknikari bat izango zen. Gaur egun, Udaletxean faltan

dugun egitura sendo bat eratzeaz arduratuko zen. Kontuan izan behar da, beste hainbat gauzatan bezala, herri hau boluntariorian oinarritua dagoela. Noski boluntarioria hor dago, oso ondo dago, beharrezkoa da, baina ezin duzu guztia beraien esku laga. Hauek asperitzen direnean, zer? orduarteko lan guztia bertan behera geratzeko modua dago. Ez dut esaten boluntarioria ordezkatu behar denik, baina bai laguntza eskaini Udaletxetik.

- Zeintzuk izango ziren kirol teknikari honen eginkizunak?

Aipatu dudan

**Iragarri zaitez.**

Tel:78.90.85

Faxa: 789043

**ANA LIBURUDENDA**

Zatoz beste dimentsio b...

Tel:768078

egitura horren eraketaz gain, lan egiten duten elkarteei neurri batean laguntzea izango zen. Asuntza da, zerbait egon behar dela fijo eta erreferentzia gisa. Gauzak antolatuta egin behar dira beste hainbat arlotan bezala; ez dakit ba, kirol ekintza bat dagoenean, edo instalakuntza batzuk eskatzen direnean kriterio bat egon dadila diru banaketarako... orain bai, orain ez. Hor badago duela gutxi jaso dudana kirol instalazioen gaineko proiektu bat. Proiektu hori herrira egokitu beharko zen, horretarako jendearen premiak eta aukerak ikusi beharko ziren. Jendeak nahi duenaren artean eta ahal denaren artean oreka bat bilatzen saiatu beharko ginateke.

**- Zer moduz ikusten duzu kirola Elgetan?**

Kirola, egon badago. Nik uste gehiago egon beharko lukeela. Baina, azken finean herri batek merezi duena duela uste dut. Jendeak gehiago behar balu gehiago egongo zen. Eskola kirola pisat aldera utzita, ditugun kirolak pilota, ziklismoa eta aisialdirako kirola ditugu. Egia esan, kirol federatuek ez dut beste munduko prekuziorik. Beharbada aisialdiaren esparrua gehiago jorratuko nuke, jende gehiago mugitzen baitu. Jendeak kirola egin nahi badu aukera eman behar zaio, adin guztietako per-



**Iñaki Ugarteburuk bizi guztia eman du kirolari lotuta.**

tsonei eman behar zaie aukerak. Eta instalazioak baditugu, nahiz eta gutxi izan, ongi egotea komeniko litzateke. Gero dirua badaukagu, instalakuntza berriak egiteko, ba, hobeto. Horregatik hau guztia gertatu ez dadin nire burruka kirol teknikari bat kontratatzea izango da.

**- Deba Bailarako herrietan kirol instalakuntza berriak egin behar dituztela entzun dugu. Zer tokatuko zitzaion Elgetari?**

Teknikari mailan egiten ari garen proiektu bat da. Oso ezberdina da teknikari artean egiten den proiektu bat eta gero politikariek beraiek egingo dutena. Baina, esan, ideia ingurune natural batean kirol instalakuntza

batzuk egitean oinarritua egongo zela. Elgetan, Asentzioko parkearekin joan zitekeen lotuta. Kirol instalakuntza konkretu bat izango zuen gune natural baten aurrean egongo ginateke, bitartean, aisialdirako baliagarria izango zelarik. Baina oraindik ez dugu ezer erabaki. Herri bakoitzean kirol ezberdin bat egiteko aukera egongo litzateke: herri batean rokodromo bat izan genezake, beste batean golf zelai bat, tenis pista... beti ere naturan egingo ziren kirolak izango ziren. Proiektu honekin jendea erakarriko genuke Elgetara, modu honetan udaletxeak martxan jarri duen turismo proiektuaren zati bat izango zen. Elgetako zer-

bitzuak areagotu beharko ziren jende gehiago erakarri nahi izango bagenu.

**- Zer uste duzu falta zaiola kirolari Elgetan?**

Lehen esan dudana gutxi-gorabera. Ordena faltan botatzen dut. Instalazio mailan adibidez, instalazio berriak eraiki beharrean daudenak hobetzen joango nintzateke, behar diren moduan ezarriko nituzke gauzak. Bestalde dinamika sendoago baten falta botatzen dut, batez ere eskola kirolaren arloan. Badakit badabiltzala lanean hiru bat pertsona eskola kirolean eta ondo egiten dituztela gauzak, baina ikastetxeak, herriko eskolak, ez diete laguntzen. Nire ustez eskolak ezin du hori egin. Nerezat eskola kirola lehentasunetariko bat da. Eskolaren inplikazioa falta da, hitzak dioen bezala eskolan egiten den kirola da nahiz eta eskolaz kanpo egin. Zer gertatuko da eskola kirolean diharduten hiru hauek edozein arrazoiengatik, bai beren semealabak nagusitzen diralako, edo beste zerbaitengatik, eskola kirola lagatzen badute? Zer, ez zen eskola kirolik egongo? Udalak ardura hartu behar du eta eskolak ere bai.

**- Kiroletarako dirurik bala dago?**

Aurtengo aurrekontutik oso gutxi dago.

***"Nere lehenengo asmoa eta garrantzitsuena, kirol kontseilu zabal bat eratzea izango da."***

**Elgeta autoak**

**EUROTALLER**

**Zure autoaren mantenua konponketak**

**Ez izan dudarik, bisita gaitzazu eta gure prezioekin txundituta geratuko zara. Berraondokuan gaude, Elgetan bertan.**

**Tel.: 943 76.82.02 eta 943 76.82.98**

# “Estampaciones Elgetak”

## Eibarko txapelketa hasi berri du

Aurten, bederatzi talderen artean erabakiko da txapelketa

Urtero bezala, urrian ekin zion Elgetako saskibaloia taldeak 99/00 saskibaloia denboraldiari. Eibarko polikiroldegian jokatzen den txapelketa honetan talde partehartzaileen beherakada nabaritu da. Iaz, hamabost taldek hasi bazuten txapelketa, aurten bederateratzi taldek parte hartuko dute. Beherakada nabaria izan da aurreko urteekin konpararatu. Iazko talde punteroetatik bik federatzearen erabakia hartu dute eta beste hainbat talde desagertu egin dira.

Taldeen murrizketa honek elgetarrei gauzak erraztuko diela dirudien arren ez dira konfiatu behar. Ezuztekoak edozein momentutan egon daitezke, eta are eta gehiago eratu berriak diren talde batzuekin. Txapelketa ligaska eran jokatuko da bi itzulitar. Ez da egongo iaz egon zen maila bereizketarik. Puntu gehien eskuratzen duen taldeak bereganatuko du liga. Behin liga amaituta kopa jokatuko dute, txapelketa orduan txela amaituz.

### Iazko talde beretsua

Iazko ligako titulua eskuratu zuten jokalaria beretsuak jarraitzen dute taldean. Agian faltan botako duten jokalaria Bergarako Angel izango da izan ere aurten ez du parte hartuko Eibarko txapelketan. Hala ere, Elgetako taldeak badauka Angelen hutsa betetzeko bezainbeste maila.

**T x a p e l k e t a**, urriaren 16an hasi zuten garaipen batekin. Haste bete beranduago, beste partida bat jokatuko zuten berau ere irabazi egin

zutelarik. Taldea ez zen batere gustora ibili aipatu bi partiduetan. Lehendabizikoan huts ugari egin zituzten batez ere baloia pasatzerakoan eta bigarren zatian beherakada nabarmena izan zuten. Hamar puntuz irabazi zuten azkenean. Beste partida berriz erosoago jokatuko zuten, baina hemen ere erritmo falta nabari zitzaien. Azkenean 35-24 irabazi zuten. Oso emaitza baxua, saski azpian ez ziren eta batere fin aritu elgetarrak.

## Euskadiko Hiru Txirlo Txapelketako tiraldia

Urriaren 23an, zapatua, jokatuko zen Elgetan Euskadiko Hiru Txirlotxapelketaren azkenaurterko tiraldia. Tiraldi honetan irabazlea Imanol Osoro (Elgoibar) izan zen zazpi txirlorekin. Bigarren Ganitz Rodriguez (Eibar) geratu zensei txirlorekin. Euskadiko Txapelketa hau lau tiraldiz osatuta dago eta guztira 77 partaidek eman dute beren izena. Lehenengo Santa Eufemian izan zen, bigarrena Asola Berrin. Gauzak honela, sailkapen orokorrean lehenengo, Larreategi Plaentziarra doa 20 txirlorekin. Bigarren berriz elgetako taldeko Haritz Uri-

besalgo (Bergara) 19 txirlorekin. Txapelketa amaitzeko tiraldi bat falta da, urriaren 6an egingo den Iruzubietakoa (16:30). Bestalde, Elgetan urtero ospatzen den gabonetako bolo txapelketa hastekotan da.



Jende dexente hurbildu zen bolo txapelketa ikustera.

### Eskolarteko kirola hasi dute elgetako haurrak


Urtero bezala, Elgetako haurrak, eskola kirola programaren barruan arituko dira. Gazteek beraien gurusoak lagundurik, inguruko herrietako eskoletako umeekin lehiatzeko aukera izango dute. Duela hiru aste hasi ziren jokatzen. Honela, eta ikasturteak iraun bitartean, umeek era guztietako kirolak egiteko aukerak izango dituzte (eskubaloia, saskibaloia, eskupilota eta futbola). Gaztetxoek eskubaloiarekin hasi zieten denboraldiari. Lehenengo partiduan erraz nagusitu ziren Aranzadiren aurka. Bigarren partiduan berriz Mariaren Lagundiaren kontra galdu zuten. Nagusiagoak, futboleant jardun zuten eta bi partiduetan irabazi zituzten aurreko bi taldeen aurka (5-1 eta 3-0). Neskek ere ez zuten zortetik izan futboleant, galtzea tokatu zitzaient.



Auskalo zelan deittu zotsen honi jokuoni Salbador kaleko jaixak antolatzen ibilli ziranek. Guk danetik onartu dogu: "la rana" jokua, zapuana, igelana, apuana, txapak botatziana... bateronbateg holako erantzuna emon ezkerontzat hartuko giñuke. Ez dakitt txapak botatzen abilla zarien baiña erretatuai begiratu, zer dan asmau eta kartatxo bat bialtzen ez zarie asko animau.

Hurrengo alian zer eskaten dan? erreza. Zer da erretratuan agertzen dana? Jakiñ, usaiñ ona eukitzeko arrazoiak badakazela, baiña usein txarra be eukitzen dabela. Azpixon dakanak usaiñ ona batzundako euko dau, beste batzundako...

Zer dan jakiñ ezkeront badakixu nora bialdu kartia, Goibekokalera. Kultur etxian gare, Salbador kaleko 2. zenbakixan.



Ugorren Komikia

Goibekokale 50.zk



Gaztiak, abertzaliak eta nafarrak uffffffff! jende arriskutsua. Azken hilla-betian nafarruan gertautakua ez da barrixa, baiña, esanguratsua bai. Itoitzeko solidarixuen (solidarixuei jarritako) sententzia alde batera lagata, eta ez da erreza —nork epaittuko dittu politikuak?— gaztiak emon dabe zeresanik. Ez euron kulpaz, baiña hor izan dira periodiko eta gainontzeko komunikabideetan.

Hasteko, Noaiñen bertako zinegotzi batzun kontra egindako erasuak eta gero bi gazte atxilotu zittuen. Itsumustuan egindako sarekadan bi gazte eruan zittuen, hurrengo egunetan ondo baiño hobeto aditzera emon zozkuenez. Egun batzuk komisaldegian inkomunikauta egiñ eta juezangana eruan eta gero libre geldittu ziran fiantzapian. Milloi bateko fiantzia bakoitxantzako eta bi

milloiko fiantzia Estatuantzako. Atxilotzerakuan informazio pillo bat periodikuetan, libre geldittu ziranian bi lerro. Beste kantari-poetak esaten zaben moduan, periodikua letuz ilustratzen gera.

Gero, eta oiñdorian Pilarikako poza pasau barik-edo, beste lau gazte atxilotu zittuen, eta bi egun orduko lautik

riak lehenengo orrixan titular handixetan 'Nafarroan atxilotutako lau lagunetatik hiru hainbat aldiz ospitaleratu behar izan dituzte', eta El Mundok, berriz, 'Los detenidos en Navarra atentaron contra Apesteguía'. Badago aldia batetik bestera; bai azalian, bai mamiñian, barruko informaziñuan ere gora-behera dexentiak zeuzazelako. Esate baterako, El Mun-

ez, gazte edo ez —abertzalia bai—, sareko hurrengo arraiña zu zeu izan zeinke eta zure ezagunen bat, edo bixok, hirurok,... Eta, orduan eurak mesedez eta faborez eskatuta Manoleteren kontuoi argittu biharko dozu.

Amaitzeko, EEBBetan be badago preso ezagun bat, eta hemendik abenduaren 2ra arte bestelakorik ez bada gertatzen Mumia Abul-Jamal hilko dabe egun horretan. Alperrik izango dira mundu osuan eta EEBBetan be azkenengo urtiotan egindako protestak. Badaezpadako juizua izan eta gero, 17 urte pasau dittu kartzelan, eta hemen orrixan hurrengo nere txapatxandia orduko hilda egon leike.

Eskorbutokuak esaten zeben moduan "muchu policia poca diversión". Gora dibertsiaña!

## *Sarekadak sarekada eta nafarra izan edo ez, gazte edo ez — abertzalia bai—, sareko hurrengo arraiña zu zeu izan zeinke.*

hiru ospitalera eruan be bai. Hirutik bat hiru bidar gaiñera. Itxuria danez, medikuanganako txandia hartuta zeuken eta ezin txandapasia egiñ. Azkenian, Garzonek bat libre laga eta hiru kartzelara bialdu dittu.

Egun berian hola-xe jaso zeben bi egunkaririk hori notizioi: Egunka-

dok esaten zabenez (poliziaren arabera), erregutu eta erregutu, eta lau atxilotuetako batek aitortu dau hor ekintzan parte hartu ebala! Ospitaleratutakuen barririk ez. Egunkarian berriz, ospitalian izandakuen egoerian berri zabal xamar.

Sarekadak sarekada eta nafarra izan edo

Enrike Gorrotxategi

**Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.**

Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273



**KONTXI  
ARRANDEGIA**  
Salbador 5 Tel: 768009



Erretratua: Maite Mandaluniz

## Bekokalekuak


**G**oibekokalen goikuak izan zeben urten eta edozein neskan ahotan egoteko aukeria: Hau guapuau zein da? Zein da hau bizardunoi? eta hau potoluau? Ene, honek futbolian jokatzeko zeban ala?

Kriston ambientia egon ei zan partiduan. Hori giruoi ezin ba guk zuenganaiño eruan, baiña partiduan izandako golak esan geinkez. Launa akabau ei zan partidua, lagunartian eta galtzailleik barik, poztekua da benetan. Saiatu gara futbol zelaixan pasautakuak berriro akordau eraitten, baiña danak ahaztuta darella esan doskue.

Oinguan, esandako moduan, bekokalekuei tokatzen jakue. Ederrak mutikotiak dare bekokalekuen artian be. Zelako pelajia zeken ez ahazteko hemen dakazue erretratua izen eta guzti:

Tente darenak: **Jose Luis Gorosabel, Fernando Zenitagoia, Luis Mari Osoro, Iñaki Legaristi, Jose Ramon Saratsua, Ramon Ugalde, Luis González, Isaak Lera, Benito Romaneli, Aitor Bolinaga eta Juan Luis Ubera.**

Makurtuta darenak: **Juan Mari Arantzta, Jorge Bolinaga, Alberto Zabala, Felix Bolinaga, Jose Iñaxio Gallastegi, Jose Antonio Egizabal eta Aitor Altzuaran.**



# Goibekokale aldizkariko loteria salgai

40.955 zenbakia

Taberna eta  
dendetan daukazu.  
Ez galdu aukera.



Mikel  
Urdangarinen  
azkenengo  
singleak  
dauzkagu  
banatzeko,  
agur polit bat  
idazten duten  
lehenengo ira-  
kurleentzako.  
Agurrak bidali  
Goibekokalera.